



Muntaketa lanak aste honetan Senpereko aintziran. ISABELLE MIQUELESTORENA

Ikastola bildua atxiki nahi du Seaskak igandeko Herri Urratsekin


Haurren gunea indartuko du aurten ikastolen besta nagusiak, eta gazteak parte harrarazi nahi ditu animazioen bidez • Herriko haragia proposatuko du lehentze bi tokitan, eta 'baso berriak' denetan

Iñaki Etxeleku *Ortzaize*

Aurtengo Herri Urrats, 32.a, Ziburuko Kaskarotenea ikastolaren aldekoa izanen da; hala komunikatu du Seaskak, jendea mobilizatu nahiz bezala. Ziburun jabe pribatu bati lurraren erosteko harat-honataki abiatuak dira, eta ez da zama ttipia ikastolen federazioaren bizkar. Seaskaren barnean desadostasun eta eztabaidak eragin baditu ere, diru iturriak oro landu nahi dira Ziburuko erronkari buru egiteko.

Hur Gorostiaga zuzendariak joan den neguan esplikatu bezala, federazioak oro har dituen beharrei erantzuten ari zaie Herri Urrats azken urte hauetan. Horiek horrela, jendea etortzera akuitatu nahi da Ziburuko aitzinean emanez. «Jendeak ikus dezan hurbilagoetik edo konkretuagoa izan dadin helburua, nahi

EGITARAU



1 2 3 Hauren Xokoa (egun osoan)

Irrien Lagunak, puzgarriak, zurezko marrazketa, tranpolina, 'rodeo', eskalada, joko handiak, Albaola erakustaldia eta tailerrak.

ITURRIA: SEASKA

izan dugu komunikatu Ziburukoarekin aurten; heldu den urtean beste proiektu baten inguruan izanen da», esplikatu du Maialen Etxemendi Herri Urratseko lehendakarikideak.

Ez da hain aise, gainera, denetan bezala Senpereko aintzira inguruan egiten den bestak ere sendi baitu jende apaltzea edo publikoaren xuhurtzea. «Denetan bezala, orokorra da; beherakada bat izan da, jende gutiago hurbildu zaigu, sustut Hegoaldetik, baina halere hein on batean egoten gara».

Nahiz zaila den arrazoi baten ematea, jendearen diru ahalarren mendratzea ikus daiteke alabaina. Beste ohar bat ere etorri da Hego Euskal Herrikoengandik buraso antolatzaileen belarrietara, Etxemendik dioenez: «Beti leku bera dela, leku berean egiten dela eta behin jin eta aski dela». Hots aldaketa eskas aire bat ikus-

ten diote zenbaitek. Horretarako dituzte antolatzaileek eginahalak egiten egitarauaren doi bat berri- zeko urteka.

Haur eta gazteak jostarazi

Tiraren pizteko egitarauak badu munta. Hain zuzen, duela zenbait urte horretan egin zuten parioa antolatzaileek. Orduan, kontzertuetan indar egitea izan zen asmoa, talde ezagun zenbait hurbilazten entseatuz eta gune berri eta handiago bat horretarako apailatuz. Nafarroa deitzen den pezoi zola erabiltzen da geroztik oholtza nagusi gisa eta talde arrakastatsuen emanaldietarako. Willis Drummond taldeak –aurten- go kantuaren egileak –, besteak beste, hor du eskainiko aurten emanen duen kontzertu hain segur bakarra.



«Gustu guziendako programazio bat egin nahi dugu. Eman dezagun, azkartu dugu dantza gunea»

Maialen Etxemendi
Herri Urratsko ko-lehendakaria

Lehentasuna lekuko taldeei eman nahi die Herri Urrats-ek, musikan beste animazioetan bezainbat. «Gustu guziendako programazio bat egin nahi dugu. Eman dezagun, azkartu dugu dantza gunea».

Haurren xokoa ere indartuko da igandean. Orain arte bi xoko bazituzten gazteenek, eta hirugarrena muntatua izanen da. Helburua delarik haurrak «aktibok» izan daitezen ateleria eta abusagailuei esker.

Xede beretan dira antolatzaileak gazteekin, 13 eta 16 urte artekoentzat. «Aurtengo berrikuntza da; berriz hartu dugu Hegoaldeko ikastolen bestetan egiten den Erronka proiektua, euskaraz jostatzeko parada izan dezaten». Ohartuak ziren adin tarte horretakoak bestaren egiteko moldean «entzule eta aski pasibo» zirela eta, euskararen besta izanez, hizkuntzan gozatzeko parada ekarri behar zitzaizela.

Gainerako zenbait bestatan abiatua den bezala, Herri Urrats-ek indar zerbait egin nahi du ere tokiko hazkurriari begira. «Ohiturak ez dira hain errazki aldatzen», aitortu du Etxemendik; «gero, ekonomikoki ere karioago ateratzen zaigu tokiko ekoizpe-

nen banatzea, kantitate handiak baititugu egun horretan». Talotan eta beste hasiak ziren jadanik duela bi urte Idokiko gasnarekin, eta hala jarraitzen dute. Aurten lehen aldikoz tokiko haragia ere proposatua izanen da bi gunetan, Herriko ekimenekoa.

Ingurumenari lotuak diren beste ezaugarriak dira komoditateak alde batetik eta edateko basoak bestalde. «Komunena da dugun beste eztabaida bat; hori ere noizbait jinen da!», dio irriz Herri Urratsko lehendakari- deak.

Haatik, aitzinamendu bat izanen da basoen aldetik aurten; iaz, bi ostatutan jarri ziren, eta, aldi honetan, gune osoan baso berre- rabilgarriak edo baso berriak izanen dira. Bizi Garbia eremuko hondakin kudeatzeko sindika- tuarekin ere bereizketa lantzen du ikastolen bestak. «Ostatu gu- zietan bereizketa egiten da: berri- nakia, kartoia... Eta astelehenean talde batek zaintzen du bereizke- ta hori. Indar berezia egina da».

Azken herriko bozetan gehien- go aldaketa gertatu da Senperen, baina Etxemendik dio horrek ez duela aldaketarik ekarri. «Beste ekipak ekartzen zigun laguntza bera badugu aurten ere».

Burasoen inplikatzeari

«Taldea lana da Herri Urrats», az- pimarratu du lehendakari-za Daniel Laxague Garaziko ikastolako burasoarekin partekatzen duenak. Eramaille den bulego edo talde nagusian hamar bat lagun bil- tzen dira urtean zehar. Horrez gain, hilabetean behin, ikastole- tatik etorri bedera ordezkari-ko multzo handiago bat biltzen da, nolabaiteko biltzar nagusi bat osatuz. 50 bat kide elkartzen ditu horrek nonbait. Hor dira infor- mazioak trukatzeko eta delibero zenbait haztatzen.

Talde handi horretarik bana- tzen dira burasoak lan batzorde- ka: animazioa, logistika, seguru- suna, dirua, salmenta eta haurren xokoa. «Batzorde bakoitzak badu bere autonomia, eta proposame- nak partekatzen dira biltzar na- gusian».

Lanerako parte-hartze krisirik ez du bizi iduriz ikastolen bestak. «Jendea inplikatzeko da. Argi da ikastoletan. Burasoek badakite hautu hori egiten dutelarik lan- ean ari izan beharko dutela». Ikas- tolei ematen zaie ardura guneen antolatze-ko, eta konfiantza osoan egiten da arduren banatze hori, antolatzaile taldekoaren arabera. Gero, ikastola bakoitzaren gain da kide dituen aita-amen susta- tzea lan txandean bermatzeko.

Eraikitze-ko baimen galdea laster pausatze-koa du Kaskaroteneak

Etziko Herri Urrats Ziburuko ikastolaren aldekoa izanen da • Eraikitze-ko baimena ukan ondoan iraileko sartzea egoitza berrian egin behar luke

I.E.

Sostengu andana bat bildu du orain arte Ziburuko ikastolak, herriko etxearekiko patasken ondo- tik. Izan zen manifestaldia, jende- ak eta erakunde zenbaitek ekarri diru sostengua, baina ere beste ekitaldi mota batzuk. Berriki, errugbi partida jokatu zuten Or- dizia eta Hernaniko taldeek ikas- tolaren probetxuko. Zenbait egun lehenago, Bectso saioa eskaini zu- ten Euskal Herriko azken bertso- lari txapelketa nagusiko zortzi fi- nalistek Baionako antzokian.

Herri Urrats Kaskaroteneak di- tuen beharrei oihartzun egiteko parada gisa hartu du Seaskak. Ikastolako lehendakari Laida Mu- jikak *Hitza*-ri esplikatu dio ikas- tola berriaren xedeari begira gau- zak aitzina doazela. «Salmenta hitzarmena izenpetu genuen duela hilabete, guti gorabehera. Geroztik ari dira aurrekontuak lantzen eraikuntzarentzat. Erai- kitzeko baimen eskaera pausa- tze-koa du Egoitza taldeak [Seas- karen barneko eraikuntza bat- zordea], eta espero dugu ondoko egunetan egitea».

Herriko etxearekin ere bildu dira ikastolako ordezkariak, ikus- teko zeren egiteko prest lirateke- en. «Erantzuna ez da sekula argi, baina erran digute ahal duten neurrian lagunduko dutela, diru guti badela buxeta murrizketen- gatik, legez ezin dutela ikastola bat lagundu, beraz ikusi behar dutela nola egin». Bizkitartean, argindar, ur hornitze eta zola es- talduraren lanak bere gain hartu- ko ditu herriak. «Deus ez da adostua oraindik ofizialki, baina haiekin hitz egin dugularik hori atera da», aitortu du Mujikak.

Gune berrian abiatu beharko dute haurrek irailtik lekora, ikastola orain den tokia uzterat behartuak baitira. «Horregatik nahi dugu eraikitze baimen gal- dea ahal bezain fite pausatu, epe bat baita ondotik auzoendako, ados direnez errateko». Baimen galdea herriko etxeak onartu on- doan, bi hilabeteko epea luke ho-



Kaskaroteneak gaur egun duen egoitzako sartzea. SYLVAIN SENCRISTO

rrek inguruko herritarren oha- rren biltzeko. Kontrakorik ez bada, antolatze obren egiteko as- tia kontatu behar da hortik hara.



«Nahi dugu eraikitze baimen galdea ahal bezain fite pausatu, epe bat baita auzoendako, ados direnez errateko»

Laida Mujika
Kaskaroteneko lehendakaria

Dena den, delako *Algeco* ater- peak izanen direnez, baimena ukan ondoan gauzak laster joan daitezke. «Printzipioz udan egi- nez, irailean hasiko ginatke, nahiz eta den-dena ez bukatua izan ere». Esperantza zerbaitekin mintzo da Mujika, gertatuak ger-

tatu, beste zerbaitegara iragateko- asmoarekin: «Helburua da saia- tzea normaltasun batean sartzen. Pixka bat akituak gara historia honetaz guziaz. Nahi dugu ikas- tola normal bat bilakatu, besteen kezka berak ukan, pedagogiaz eta holako gauzez gogoetatul!».

Gaur egungo dozena haurrekin eginen lukete heldu den sartzea. «Mementoan, iraileko ez dugu kopuru zehatzik. Urtean zehar badakigu hiru ikasle berri sartuko direla ikastolan». Itxaropena dute burasoek eremu berrian sar- tzearekin haur gehiago etorriko dela. «Oraingoa biziki ttikia da, eta gertatu den guztiarekin pen- tsatzeko da batzuk hoztu direla. Badakigu egoitza izanen dugula- rik haurrak hurbilduko direla».

Arte horretan, ikastolaren ize- narekiko begi kliska moldean edo, bideoklip berezi bat muntatu dute ziburutarrek Kaskarot dan- tza harturik oinarri, Herri Urra- tsera saldoan joateko dei eginez.